

**6/2026 TXOSTENA, MAIATZAREN 18KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN
AHOLKU BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: 1/2026 ZIRKULARRA, MAIATZAREN 18KOA, ONDARE ETA
KONTRATAZIO ZUZENDARITZARENA, DOKUMENTAZIOA KONTRATAZIO
BATZORDE NAGUSIARI (KKK) BIDALTZEKO PROZEDURARI BURUZKOA.****I.- AURREKARIAK.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 5. artikulua 8. apartatuaren arabera, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren eskumenen artean dago honako hau:

«[...] c) Kontratazioaren arloko zirkularrak egitea eta gomendioak edo gidalerroak onartzea.

Horri dagokionez, Kontratazio Batzorde Nagusiak sailen kontratazio-espeditenteei lotutako dokumentazioa jaso du gaur egun arte, hainbat kanalen bidez (paperezko formatuan bidaltzea, posta elektronikoa, besteak beste).

Informazioaren trazabilitate integrala bermatzeko, informazioaren transmisioan segurtasuna indartzeko eta administrazio-koordinazioa optimizatzeko, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak informazio-zirkular baten proposamena egin du, dokumentazio hori bidaltzeko eta jasotzeko prozedura eguneratzeko eta homogeneizatzeko.

2026ko maiatzaren 11n, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak zirkular horren edukiari buruzko txostena egiteko eskatu zion Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari.



II.- ESKUMENA.

Txosten hau nahitaezkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a) .7 artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak kontratazio publikoaren arloan egindako zirkular baten proposamena da.

III.- GOGOETA JURIDIKOAK.

Aztergai dugun zirkularraren proposamena, ikuspegi material batetik, koordinaziorako, estandarizazio operatiborako eta dokumentu-fluxuak antolatzeko barne-tresna bat da, Kontratazio Batzorde Nagusiak (aurrerantzean, KKK) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio-sistema zentralizatuaren esparruan egiten dituen kontratazio-espedienteei lotutako dokumentazioaren bidalketa, harrera eta kudeaketa bideratzeko.

Zehazki, Zirkularrak espedienteetako gutxieneko alta-datuei, informazioa bidaltzeko kanalei eta Kontratazio Plataforma erabiltzeko jarraibideei buruzko jarraibideak jasotzen ditu, bereziki «Prestaketa-jarduketak» fasean, eta arreta berezia jartzen du dokumentazioaren trazabilitatean, osotasunean eta segurtasunean.

Edukia eta irismena direla eta, proposamenaren testuak ez du inolako arau-berrikuntzarik sartzen; aitzitik, barne-operatiboa antolatzera eta betebeharrak instrumentalak betetzera mugatzen da (hala nola dokumentazioa, kontserbazioa, osotasuna, erabiltzaileen identifikazioa eta data eta ordua jasotzea), eta, beraz, kontratazio publikoaren lege- eta erregelamendu-esparruarekin guztiz bateragarria den moduan interpretatu eta aplikatu behar da, eskumenen banaketa eta prozeduraren egintzen araubide juridikoa aldatu gabe.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretua erreferentziazko araua da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren arloko eskumenak antolatu eta banatzeko. Esparru horrek kontratazio-organoak identifikatzen ditu Administrazio Orokorrean — sailetako titularrak —, eta autonomia-erkidegoko sektore



publikoko gainerako erakundeetan, berriz, ordezkari-organoren gorenak, aurreikuspen espezifikorik ezean.

Horri dagokionez, zirkularrean jasotako eskakizuna, «erakunde sustatzailea» eta «kontratazio-organoa» gutxienezko datu gisa identifikatzeko, guztiz koherentea da kontratazioaren subjektu arduraduna eta organo eskuduna argi mugatzeko beharrezkin, hargatik eragotzi gabe sailen egituretatik edo eskuordetzeko edo deskontzentratzeko barne-araubideetatik eratorritako berezitasunak, zeinak, nolana ere, errespetatu egin behar dira.

Kontratazio zentralizatuaren esparruan, 116/2016 Dekretuak aurreikusten du Kontratazio Batzorde Nagusia kide anitzeko organoa izango dela, Ondarearen Zuzendaritza Nagusiari atxikia, eta aholkuak emateko, koordinatzeko eta, bereziki, kontratazio-sistema zentralizatuko kontratazio-mahai gisa jarduteko eginkizunak izango dituela. Halaber, aurreikusten da Zuzendaritza Nagusiko titularrak eginkizun horiek Ogasun eta Finantza Saileko Kontratazio Mahaiari esleitu ahal izango dizkiola.

Aurreikuspen horrek estaldura nahikoa ematen die KHKK kontratazio-mahai gisa dituen eskumenei, eta ulertu behar da dokumentuak igortzeko eta kudeatzeko gidalerro operatiboak, hain zuzen ere, kontratazio-organolari laguntzeko, eskaintzak ebaluatzeko eta proposamenak egiteko eginkizun horiek betetzeko dokumentu-euskarri egokia bermatzera bideratzen direla.

Zirkularrak proposatzen duen prozedura-eguneratzearen oinarria da trazabilitate integrala bermatu behar dela, informazioaren transmisioaren segurtasuna indartu behar dela eta administrazio-koordinazioa optimizatu behar dela. Helburu horiek kontratazio-plataformaren erabilera sistematikoan zehazten dira, bereziki «Prestaketa-jarduketak» eremuan, data, ordua eta erabiltzailea erregistratzea ahalbidetzen duten funtzionaltasunak lehenetsiz, bai eta abisu automatikoak sortzea ere.

Ikuspegi hori guztiz koherentea da kontratazio publikoan bitarteko elektronikoak erabiltzeko eskakizun orokorrekin; izan ere, truke- eta biltegi-sistemek arrazoiz bermatu behar dituzte transmititutako datuen osotasuna eta bidaltzailearen identitatea, eta komunikazio eta jakinarazpenetarako erabilgarriak aplikazioek aukera eman behar dute bidalketaren, harreraren edo sarbidearen data eta ordua egiaztatzeko.

Espedienteari alta emateko «ezinbestekoak» diren datu jakin batzuk eskatzea (erakunde sustatzailea, kontratazio-organoa, kontratu mota, gaztelaniazko eta euskarazko izendapena eta izapidegileen kontaktua) juridikoki arrazoizkoa eta proportzionatua da, espedientea, organo eskuduna eta solaskide operatiboak behar bezala identifikatzeko aukera ematen baitu, eskumen-araubidea aldatu gabe eta neurritz kanpoko kargarik sartu gabe.

Orobat, gutxieneko alta-informazioa bidaltzeko bi kanalen aurreikuspena (posta elektronikoko korporatiboa eta erregistro ofiziala) administrazio-aktibazioko eta hasierako koordinazioko barne-mekanismo gisa interpretatu behar da, eta ez Kontratazio Plataforman espediente elektronikoen dokumentuak formalki sartzeko ordezkapen gisa. Inguruabar hori indartu egiten du zirkularrak berak, dokumentu-kudeaketa substantiboa ingurune elektronikoko horretara lekualdatzen baitu.

Era berean, «Gehitu eta bidali oharra» eta «Gehitu» funtzionalitateen arteko bereizketa eta azken abisu bakarra duten karga masiboetarako proposatutako jarraibide operatiboa juridikoki onargarria da administrazio-efizientziaren ikuspegitik, baldin eta ulertzen bada, azken dokumentuetarako edo espedientearen izapidetzean bereziki garrantzitsuak diren dokumentuetarako, erabiltzailea identifikatzen duten funtzionalitateak erabiltzeak indartu egiten duela auditoretza-aztarnaren sendotasuna.

Dokumentuak nahitaez sailkatu behar dira, sartzeko unean tipologiaren arabera hautatuta. Sailkapen horrek espedientearen sistematikoki ordenatzen laguntzen du, haren kontrola eta lokalizazioa errazten du, eta hartutako erabakiak justifikatzeko informazio egoki eta nahikoaren kontserbazioa indartzen du, barne-gardentasunaren eta auditagarritasunaren eskakizunekin koherentea izanik.

Bereziki egokia da dokumentuak ezabatzeari eta ordeztzeari buruzko jarraibidea, eta gomendatzen da edozein zuzenketa egiteko bertsio zuzena eranstea, jasota uzteko funtzionalitateak eta abisua erabiliz, azalpen-oharrek batera, auditoretzaren arrastorik gabeko aldaketak saihesteko eta espedientearen osotasun-printzipioa indartzeko.

KHKk dokumentazioa aztertzeko eta, hala badagokio, ingurune elektronikoko beraren bidez eta izapidegileei automatikoki abisatuta zuzenketak eskatzeko edo gehitzeko



aurreikuspena koherentea da espedientearen kudeaketa ordenatuarekin eta barne-komunikazioak behar bezala egiaztatzeko moduan jasotzearekin.

IV.– ONDORIOAK

Ondorio gisa, adierazi behar da zirkularraren proposamen hau behar bezala txertatzen dela indarrean dagoen esparru juridikoan, koherentea dela uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuarekin, eta proportzionalki indartzen duela kontratazio elektronikoaren espedientearen trazabilitatea, osotasuna eta segurtasuna.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, eta soilik zirkularra onartu ondorengo operatiba bideratzeko eta auditoriaren arrastoaren sendotasun juridikoa indartzeko, honako gomendio hauek egiten dira:

- Azken dokumentuetarako edo espedientearen mugarri garrantzitsuak gaitzen dituzten dokumentuetarako, erabiltzailearen identifikazioa erregistratzeko aukera ematen duten funtzionalitateen erabilera lehenestea, dataz eta orduaz gain.
- Ordezkapenari buruzko azalpen-ohar edo -dokumentu bat eransteko praktika finkatzea, dokumentazio garrantzitsua ordeztzen denean.
- Deskribatutako eragiketak lizitazioari dagozkion egintzetarako bide alternatiboak irekitzea eragin ez dezan zaintzea, prestaketa-dokumentazioa bidali eta kudeatzean eta KHKrekin Kontratazio Mahai gisa koordinatzean hertsiki mantenduz.

Azaldutako guztiagatik, informazio-zirkularraren proposamenaren ALDEKO TXOSTENA ematen da, txosten honetan azaldutakoa kontuan hartuko dela ulertuta.